

Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko abuztuaren 18a / VI. urtea / 192. zenbakia

Basamortutik Zizur Nagusira



Tindoufeko erre-fuxiatuen kanpamentuetan (Argelia) bizi diren berderatzi eta hamabost urte bitarteko hogeita zortzi haur Zizur Nagusian dira abuztuaren lehenaz geroztik. Mohamed Lamid Tourad eta Ahmed Embarek begiraleekin etorri dira hil osoa bertako familiekin bizitzeko, Zizur Bi Munduren Artean gobernuz kanpoko erakundearen eskutik. Espainiaren kolonia izan eta gero, Marokkok 1975. urtean Sahara okupatu zuen eta orduz geroztik hogeitaz urteko gerra bizi dute sahararrek.

U da honetara arte ziklista gogorra baina pertsona zozo xamarra iruditzen zitzaidan Atarrabiako nere tokaioa. Aitortu behar dut, ordea, miresten hasi naizela uda honetan, siestarik gabe dozena erdi bat bazkalondotan kanpineko ostatuan telebistari begira *un cafe noisette s'il vous plaît* eskatzen ibili eta gero. Goiz partean 'Liberation' erosi beharrean, 'L'Equipe' hartzearen truke (hemen ez nuke 'Marca' erosiko, baina...) sei libera ordaindu eta le basque, l'espagnol edo le navarrais-en berri gehiago, Frantziako ditxosozko Tourraren gainean (hemen nahitanahiez irentsarazi izanen dizkizute, nardatu arte, hango kontuak). Horieta egun batean, elkarrizketa batean berak adierazten zuen harrizua zegoela hemen zegoen espantukeria horrekin. Alegia, nola handitu eta haizatzen ziren hainbertze, bizikleta gainean berak egiten zituen

ibilaldiak. Berak pedalei eragin eta malda goiti eta beheti ibili bertzerik ez zuela egiten. Harripazak hori! Patzikuk ere berdina aipatzen zuen lehengo igandean, kirolariak ez duela zertan izan hitzun dotorea, kirolariak dago-kion kirolean egin behar duela ongi, eta puntu. Lehenago ez nuen hala uste, baina konbentzitu naute, eta erantzun horiek ematen dituen 'cuencoaren' zale bihurtu.

Hala bada, Frantziako paraje horietan barna ibili gara, etxean puska guziak bildu, kotxean eta karroan sartu eta bidaiaren kalbario urterokoaren ondotik.

Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



Eguzkia kupidarik gabe, eta guk krema eman eta datorrena datorrela, gorputz osoa eskaini diogu. Oso, osoa. Badakizue, naturismoa dela eta ez dela, eta denak larrugorritan egun osoan (arraultzeak prexitzeko komeriak). Klase guztietako gorputzak ikusi ditugu, arrenak bezala emeenak. Bueno, begiratu gabe ikusi. Begiratu ez bagenu bezala, erreparatuko ez bagenie bezala, badakizue.

Horrelaxe, hogeita piko egunez. Harrizkoak gu. Ttikienak, pertsonaren inozentziaroan, basatasun zoragarri horretan oraindik direnak, lau-bortz urte

bitarte, horiek bai lasai, begiratzeko lotsarik ez eta kezka handirik gabe beraien gorputzarekin ari, ukitu eta josta. Muttikoen xakilla ttennte ere bai, noiznahi. Baina gu, handiak, «naturale sinetsiak», agerian hotz, eta gero aparte, bakoitzak bere baitan bere gezur-zakua. To, naturaleza!

Azkenean, buelta etxera. Eta hemen gobernu berria. Lankratx eta biok kontent gaude Juan Kruz horrek egin dituen saltsekin. Ez digu oraingoz inongo kargutarako deitu, baina guk propaganda eginen diogu, ze arraio. Etsia emana genuen heldu zitzaigun panorama ezin tristeagoarekin, eta sörpresa-kutxa bat plantatu digute. Hori idekitzean, «ikatz bezalako labexomorroak» seguraski,...baina bitartean gu, Santu eta Ama Birjina guzien aitzakiarekin antolatuta diren besten zorabioan, zai. Euri gozoa eginen digu udazkenean!

Udako kontuak

GURE AUKERAK

LEHIAKETA

Atarrabiako udalak 1995eko festetako kartel lehiaketa antolatu du. Nafarroan jaio edo bizi den edonork hartu dezake parte nahi adina obrakin. Artistek edozein teknika erabili dezakete baina lanek originalak izan behar dute. Obrak Atarrabiako Kultur Etxera, kale nagusiko 67. zenbakira, eraman behar dira goizeko hamarretatik ordu biak arte eta aurkezteko epea abuztuaren 30ean bukatuko da.

ERAKUSKETA

Begoña Rastrilloren margoak ikusgai daude Iruñeko San Gregorio kaleko Kaixo tabernan. Erakusketa irailaren 4ra bitartean egonen da zabalik aste osoan zehar.

Zangozako Kultur Etxean zabalik dago Nafarroako festetako argazkien erakusketa. Abuztuaren 26ra arte ikusgai izanen dira argazkiak arratsaldeko zazpietatik bederatzia arte astegunetan eta eguerditik ordu biak arte asteburuetan.

ANTZERKIA

Herriz-herri 95 ekitaldien barruan, Trokolo Antzerkiak 'Librotikoak' lana bi herritan aurkeztuko du, asteburu honetan. Gaur Lergako plazan izanen da gaueko bederatzietan eta etzi, igandean, Labiongo enparantzan ariko da, arratsaldeko zortzi terdian.

Nafarroako Antzerki Egonkorak 'El Bailecito' antzezlan eskainiko du gaur Irurtzango Foruen plazan, arratsaldeko zazpi terdian.

Iruña Pequeño Teatro taldeak Alfonso Sastre idazlearen 'Bazterrean utzitako panpin baten istorioa' aurkeztuko du bihar Mutiloabeitiko plazan, gaueko hamarretan.

MUSIKA

Balardi, Balardi eta Pottoka taldeak Amaiurren izanen dira bihar arratsaldeko zortzietan, herriko festen egitarauaren barruan.

ZINEMA

Araitx-Beteluko udal euskara zerbitzuak antolatutako 'zinea udaren' barruan, heldu den ostegunean, abuztuak 24an, 'Willow' filme dibertigarria ikusgai izanen da Beteilun. Era berean, Herriz-herri 95-ek antolatuta, 'Rapa-Nui' filmea eskainiko dute hiru herrietan, gaueko hamarretan. Gaur Taxoareko enparantzan; bihar, larunbatean, Zuñigako pilotalekuan eta igandean Untzueko frontoian.

BERTSO JAIA

Arantzako festetan, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak ariko dira herriko plazan, eguerdian eta arratsaldean.

Goizuetan herri afaria izanen da larunbatean eta bertan Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbiok partehartuko dute.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Saudi Arabian ere ura behar dute


Urrik ez dago penintsularen hegoaldean. Ura urre bihurtu da. Ura eraman behar dute ibai batetik bertzeira. 100 tomate kilo hazi nahi dute 25 kilorendako ura bertzerik ez duten lurretan. Industriak handitu eta ugaritzen dira behar bezain bertze ur ez dagoen herrialdeetan. Populazioa hazten da aitzineko bitartean. Ondorioa: bertan dagoen

la eta. Eta guztia ur trasbaseekin konpondu nahi dute. Komunikabide ofizialetan inork ez du erraten lurralde horietan dagoen ur eskariak aspaldi gainditu duela bertako eskaintza. Konponbide bakarra ura eramatea da, ez bertako eskaria egokitzea. Argi dago gizakiok natura moldatzen dugula gure erostasunaren mesedetan, baina horrek ez al dauka mugarik?

Itoitzekoei. Galde diezaietela Iratiri.

Elkartasunik bada, hau unibertetsala da. Baina inork seriozki hartuko al luke Saudi Arabiaren eskaera, ureztatu beharra duten baratzeak paratuko balitu basamortuan? Elkartasunaren izenean, noski!

Garapena desarrollismo bilakatzen denean, elkartasunari eginiko keinuak erasotzat har daitezke. Garai batean, lante-



ura baino gehiago behar dute. Beraz: ura dagoen lekuetatik harat eraman nahi dute.

Honen oinarritzko azalpena: elkartasuna. «Gainera, zenbat eta zenbat ur itsasoratzen da inolako erabilpenik egin gabe?». Hainbat eta hainbat elkarrizketa entzun ahal izan ditugu Andaluzian, Murtzian, Levanten edota Gaztela-Mantxan duten ur «beharrik» dire-

Eguneko bi litro ur badituzte bi lorontzi soilik ureztatu dituzket; ez dituzte lau lorontzi jartzen eta auzokoari bi litro ur eskatzen. Larriagoa da, ordea, gertatzen ari dena. Auzokoaren etxetik norberenera ura ekartzeko egiten dituzten lanak alde batetik, eta auzokoaren ibaien eraldakuntza (ertzak, flora, fauna) ez da kontuan hartzen. Galde diezaietela

giak eta ureztatu beharreko landak ugaldetan eraiki edo landatzen ziren. Egun, landen eta lantegiaren egarria biderkatu den honetan, ibaiak hauengana bideratu nahi dira elkartasunaren izenean. Ezkurren bila mendira joan beharrean, mendia hartu, etxera ekarri eta bertan ditugu ezkurak. Mendia zegoen tokian zer geratuko den inor gutxiri axola dio.

ASTEKO PERTSONAIAK



Pedro Larunbe
Sukaldaria

Pedro Larunbe 42 urteko sukaldari famatuari omenaldi beroa eskaini zioten joan den asteartean Lerin bere jaioterriko biztanle guztiek. Udalak herriko urrezko domina eta bazkaria eskaini zion, eguerdiko ordu batean Leringo sukaldariari. Pedro Larunbe Ernesto Velez maisuaren eskutik hasi zen sukaldari lanetan Tafallako El Chato jatetxean, hamasei urte zituela. Egun, bi jatetxe zuzentzen ditu Pedro Larunbek, Madrilgo Cabo Mayor eta Osakan (Japonia) beste bat. Hogeita sei urteko ibilbidean, ostalaritza munduko hainbat sari eta izendapen jaso ditu sukaldari lerindar omenduak. Sukaldaritzari buruzko hamaika artikulua eta liburu idatzi ditu Pedro Larunbek azken urteetan.



Javier Aiesa
Politikaria

Nafarroako Gobernua Merkatalgo eta Turismorako zuzendari nagusi izendatu du Jaier Aiesa Eusko Alkartasunako politikaria. 1987. urtean sartu zen Aiesa EAn eta azken bi legegintzaldietan Iruñeko Udaleko zinegotzi izan da. Azken hauteskundeetan Udaltetik kanpo gelditu ondoren, Nafarroako hiruko gobernutako kide izango da izendapen berria bitarteko. Javier Aiesa Iruñean jaio zen orain dela 51 urte. Ezkonduta dago eta hiru seme-alaba ditu. Baxilergoa bukatu zuenetik Nafarroako Administrazioan egin du lan hirigintza arloan. 1969. urtetik ELA sindikatuko kide da. EAn sartu zenetik alderdiko hautagaia izan da Iruñeko Udalerako hauteskunde guztietan.

JAIK



Antza denez, donostiarrek ez zekiten nola osatu euren Aste Nagusiko egitaraua eta nafarrez oroitu ziren bapatean. Jaietako azken egunerako, etzirako alegia, Iruñearen Eguna antolatu dute Gipuzkoako hiriburuan. Autobiaren eragina dela diote, orain elkarrengandik hurbilago omen gaude (kar-kar-kar).

Iruñearen Eguna kalejirekin ekingo diote, goizeko hamarretan. Ordubete geroago Iruñeko erraldoiak, kilikiak eta zaldikoak ibiliko dira Donostiako kaleetan barna eta hama bi terdian La Pamplonesak, munduko musika banda hobetuenak, joko du. Ordu batean txistularien txanda izango da, ordu bietan Nafarroako ardoa eta jakiak dastatzeko parada izango da eta gero bazkaria (nork bere kasa). Arratsaldeko seiretan zaldi lasterketa egingo dute, zazpi terdian erraldoiak eta txistulariak berriro eta, amaizteko, zortzi terdian jota jaialdia.

Hainbat bidai ajentzik autobusak antolatu dituzte, Iruñetik goizeko zortzietan abiatu eta gaueko hamarretan itzultzeko.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Baztan

Uda garaian erakusketa ugari

E.E / IRUNEA

Udako giroak ez ditu bakarrik turistak erakarri Baztan aldera. Inguruko margolari eta eskulturgileen bilgune ere bilakatu dira Baztango herriak. Elizondon, Ana Maria Marin, Tomas Sobrino eta Rafael Ubanik euren lanak dituzte ikusgai. Ana Maria Marinek Bergarenea bere etxea aukeratu du bere paisaiak erakusteko eta Rafael Ubanik, berriz, Arizkunenea Kultur Etxea. Tomas Sobrinoren koadroak, bestalde, Elizondoko Santiago kalean dagoen aretoan dira ikusgai. Marin, Ubani eta Sobrinoren erakusketak, hala ere, ez dira egun hauetan Elizondon dauden bakarrak, Arkupe galeriak ere hainbat artisten obrak bildu baititu bere pareta eta aretoetan. Horien artean, Koldo Azpiazu, Mendizabal edo Antonio Oteiza bezalako artisten obrak dira aipagarri.

Baztango bazterrak badira ere beste hainbat artistaren bilgune. Jose Maria Apeztexeak, adibidez, Erratzuko Zubietea etxea aukeratu du udako egun hauetan bere obraren kokaleku. Zigako Karakoetxea etxean, azkenik, Jesus Montes margolariaren lanak dira ikusgai. Karakoetxea Montesen beraren baserria da eta bertan areto bat egokitu du bere obra erakusteko. Ez da, ordea, halakorik egin duen bakarria eta gero eta gehiago, norberak bere aretoa antolatzea da artista askoren aukera.



Ana Maria Marinen koadroak Bergarenea etxean dira ikusgai.

Azken aldian, margolari ugariaren topaleku bilakatu dira Baztango txokoak eta bertako paisaiak horietako askoren lan iturri bihurtu dira. Tomas Sobrinoren ustez, «pinturaren inguruan giro benetan polita» sortu da azken aldian Baztan aldean. Iaz ere, aurrean bezala, bertan erakutsi zituen bere lanak uda garaian. «Azken urte hauetan kanpotar asko hurbiltzen da Baztan aldera, landa turismoa dela eta, bai Iruñetik, Donostiatik eta baita beste hainbat lekutatik ere, eta bisitari horiei zer edo zer eskaini

behar zaie», aipatu du Sobrinok. Horregatik antolatu du berak erakusketa. Joan den udaberrian margotu zituen paisaiak zintzilikatu ditu Sobrinok Elizondoko aretoan, «Baztangoak gehienak» eta Hendaia, Hondarribia eta Donibane-Lohizuneko bakar batzuk.

Sobrinoren ustez, nahiz eta gehienek Baztango paisaiak margotu, bakoitzak egiteko era ezberdina du eta bakoitzak bere nortasun propioa islatzen du bere koadroetan. Rafael Ubani ere irizti berekoa da eta bere ustez, as-

paldidanik aipatu den Baztango edo Bidasoako eskola izena «ez da zehatza». Rafael Ubani iruindarra da baina orain dela hiru urte baino gehiago Elgorriagan bizi da. Ubani Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean zintzilikatu ditu bere Baztango paisaiak baina, hala ere, «artistak berak bere aretoa antolatzea aukera polita» dela aitortu du. «Kultur Etxeak espazio egokiak dira erakusketak egiteko baina gero eta artista gehiagok hartzen du parte eta aukeratu beharra dago».

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Irteera

1996ko urtarrilaren 17an, goizeko zortzi t'erdia aldera, San Fernandoko (Cadiz) koarteleko Konpainia Berezia Iruñean izanena da, San Roque kalean, kartzelaren atarian. Koartel horretako jeneralaren aginduari jarraiki Iruñera espreski etortitako soldaduek bi ilara osatuko dituzte atearen aitzinean. Intsumitu izan ez banintz bederatzita hilabetez nere kideak izanen ziren Cadizko soldaduek, haien 'cetmeak' altxatuz, ohorezko arku osatuko dute. Askatasuna berreskuratu berria, arku horrenpean emanen ditut nire estreinaiko urratsak espetxetik landara. Aurrera so eginez gero, nire begiradak Polizia Nazionaleko 'antidisturbios' taldearekin eginen du topo. Otsailaren 23an, nire plantoaren egunean alegia, gogor eta gogoz jipoitu nindutek, ohorezko uniforme jantzirik, bokatxak altxatu eta zerua



xede dutela eginen dute tiro. Gomazko pilotek, uso zuriak bailiran, nire omenez hegan eginen dute presondegia honetara urtebete eta egun baterako bidali ninduen epaileak, Isabel Huesa Gallo andereak hain zuzen, aureskua dantzatzeko duen bitartean. Irrati-kasette batek aureskuaren doinuak goiz horretako haize hotzean barna sakabanatuko ditu, eta togadunak, Yogi hartzairen graziaz, alde batera eta bestera altxatuko du hanka. Ikuskari azpurturik, nire begiek ingurua aztertuko dute.

Eguna oraindik erabat argitzeke izanen da, eta inguruko etxeetako hainbat leihotan argia pizturik izanen da. Espetxe-inguruko zuhaitzak biluzik izanen dira, ez dute hosto bakar bat ere izanen, eta putzu lokaztuetan izotz apurrak izanen dira. Ez da, baina, inguruan senide edo lagunik izanen, eta bai, aldiz, soinean traje eta gabardina grisa daramatzen gizon grisa. Bere esku grisak zero dezente dituen txeke grisa luzatuko dit, eta bere aho grisak honako esaldi grisa ebakiko du: «Mila esker intsumisioa 'impassean' sartu izanagatik».

Ez haserretu, eta, hori bai, gauzak berraztertu.

Altsasu

CESAR BARANDIARAN



Ezkonduta zaigu Alberto!

Alberto Barandiaran, eskuartearen duzun NAFARKARIA honen arnasa eta arima, joan zen larunbatean esposatu zen Malu Ziordia altsasuarrarekin. Ezkontza Altsasuko udaletxean izan zen, arratsaldean, eta haren ondotik afari-merienda oparoa egin zuten Barandiaran-tarren etxean. Ehun eta berrogehi lagun inguru elkartu ziren eta jaiak goizaldera arte iraun zuen, Txaston musika taldearen laguntzaz. Orain Sizilia aldean dabilta, edo hori sinestarazi digute behintzat. Rikardo Arregi saria jaso ondoren bizitzan egiteko gauza gutxi geratzen zitzaioala pentsatu zuen nonbait gure Albertok, eta ezkontzea horietako bat zenez...



Bosniatik Tafalla, Barasoain, Garinoain, Puiu, Orisoain, Mendibil eta Iratxetara etorri dira zenbait haur udako hilabeteak pasatzera. Irurtzenen, berriz, errusiarrak daude eta Zizur Nagusian sahararrak. EGUNKARIA azken hauekin mintzatu da. Zizur Bi Munduren Artean gobernuz kanpoko erakundearen eskutik etorri dira eta abuztuaren 29a bitartean egongo dira bertan.

Saharako mezulariak

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Zizur Bi Munduren Artean gobernuz kanpoko erakundearen ekimenari esker, eta lau eguneko bidaia egin eta gero, hil honen lehenean ailegatu ziren Nafarroa Saharako 28 haur bi begiralerekin. Tindoufeko errefuxiatu eremuetan bizi dira, Algerian, baina abuztu osoan zehar, hilaren bukaera arte, hondarra alde batera utzi eta Zizur izango dute bizileku.

Azal beltzaranak bereizten ditu sahararrak gainontzeko haurrengandik, baina besterik ez. Euren barrea, algara eta bizipoza munduko beste haurrena bezalako da, berdina oso. Azal beltzarana, ile beltza eta begi ilunak. Neska eta mutilak, maitagarriak. Dena eta denak ezagutu nahi dituzte, eta musuak eta besarkadak ere lotsarik eta beldurrik gabe eruz ematen dituzte. Beldurrik gabe hurbiltzen dira edonorengana eta begietan dar-dar egiten dien argia ikusita, ez luke inork errango basamortuan, dendetan, lurlean bizi direnik.

Zizur Bi Munduren Artean gobernuz kanpoko erakunde martxoaren 16an eratu zen Zizur Nagusian, eta egun 50 familia —ehun lagun inguru— dira elkarteko kide. «Herri guztiaren partehartzea lortu nahi genuen bidaia prestatzerakoan» azaldu du Jose Luis Martinez elkarteko lehendakariak. Bakearen, Desarmearren eta Askatasunaren Aldeko Mugimenduari jarri ziren harremanetan eta haren bitartez Saharako Fronte Polisarioarekin. Fronte Polisarioa orain dela zazpi urte hasi zen halako bidaia prestatzen, eta urtetik urtera gero eta haur gehiago ateratzen da basamortutik udagaraian. Urten, osotara, 4.400 neska-mutiko atera dira bertatik. Hego Euskal Herrira horietako 106 ailegatu dira. SODEPAZ elkartearen eskutik, beste hogeita haur izan dira ere Nafarroan, uztailean 25a eta joan den asteartea bitartean.

Saharako hogeita zortzi haurrekin batera Mohamed Lamid Tourad eta Ahmed Embarek begiraleak etorri dira Zizurrera. Touradek bertako Administrazioan lan egiten du eta Ahmed Embarek kazetaria da 'Istiftaa' («Erreferendum») aldizkarian. «Haurrekin batera irakasleak etortzea izango litzateke egokiena baina zaila da, gehienek ez

baitute pasaporterik» dio Mohamed Lamid Touradek. Hori dela eta pasaporte duen jendea biltzen du Fronte Polisarioak haurrekin bidaiatzeko. Haurrek, berriz, taldeko pasaportea erabili dute.

«**MATERIALA FALTA DA**» Abuztuaren lehenean ailegatu ziren sahararrak

Zizurrera eta herritarrek harrera beroa eskaini zieten herriko plazan. Orduz geroztik, egunero biltzen dira bertan eta herriko gazteek prestatutako jokoekin gozatzeko aukera dute Saharako haurrek. Zaharrenek ere pozik hartzen dituzte sahararrek erruz banatzen dituzten laztanak eta besarkadak, eta euren haurtaroko jokoak erakusten dizkieten bitartean azkar joan zaie soberan duten denbora.

Jokoak alde batera utzita, hala ere, badute beste zereginik sahararrek. Izan ere, Zizurrera ailegatu zirenetik, medikuarenera eraman dituzte haur guztiak, eta antolatzaileek kontuan hartu ez zuten arazo batekin egin dute topo: betaurerakoak behar dituzte haur gehienek. Margarita Gutierrez Zizur Bi Munduren Artean elkarteko kideak azaldu duenez, «basamortuko argia eta haizea oso kaltegarriak dira begientzat». Tindoufen eritetxeak badira baina beti falta dira botikak, eta hori dela eta, halako bidaiaik funtsezkoak dira haurren osasuna zaintzeko, Touraden ustez.

Elikaduraren ondorioz ere hainbat arazo dituzte sahararrek. Tourad begiraleak dioenez, «ez dago barietarik eta ia egunero gauza bera jaten dute haurrek. Edozein haragi mota, gainera, ezin dute jan, musulmanak baitira». Elikagaiak, nazioarteko laguntza bitarteko, kanpotik eskuratu zituzte, Algeriatik eta Europako Batasuneko herrietatik batez ere.

Saharako errefuxiatuek ez dute ezer sobera. Hezkuntzari dagokionez, ikastetxeak izan badituzte baina materiala falta da. «Liburutegiak ere badira baina ez dira inondik inora hemengoak bezalakoak, oso liburu gutxi dugu». Hori dela eta, unibertsitate ikasketak egin nahi dituzten gazteek Algeria, Siria, Kuba edo Espainiara joan behar izaten dute. Lahtilal neskatoak, adibidez, argi du medikuntza ikasi nahi duela, «baina hemen ikasi nahi dute».

Tindoufeko errefuxiatu kanpamentuetan emakume sahararrak dira ardatza. Gizonak gerran diren bitartean bakarrik gelditzen dira seme-alabekin eta haurrak hazi eta familia aurrera ateratzeaz gain, kanpamentuen antolakuntza ere euren esku dago. «Gizonak hiru hilabetero baino ez dira kanpamentuetara itzultzen, eta bitartean emakumeek erizain, irakasle, kazetari eta beste hainbat gauza izan behar dute», dio Touradek. Sahararrak harrotasunez mintzatzen dira emakumei buruz, eta Zizurren diren hogeita zortzi haurrek ere etengabe dute amaren izena ahotan.

1975. urtean Marokkok Sahara okupatu zuenetik hogeita urteko gerra bizi dute bertako herritarrek. Zizurren diren haur askoren aitek gerra horretan utzi dute bizia. «Eguneroko bizitzan, gogoetetan, jokoetan islatzen da haurrengan gerrak izan duen eragina», nabarmendu du Tourad begiraleak. «Gerragunetik urrun bizi badira ere, badakite gure herriaren egoera zein den eta jolasten ibiltzen direnean ere bi taldetan banatu eta gerra egiten dute euren artean, gurasoen antzera. Badakite Sahararen independentzia lortzeko ari direla borrokan».

Errefuxiatu eremuetan bizi diren, ordea, «munduaz duten irudia erabat mugatua» dela dio Touradek. «Inguruan gertatzen dena baino ez dute ezagutzen. Hori dela eta, funtsezkoa da haur haurrentzat hau bezalako bidaiaik egin eta beste lekuetako jendea ezagutzeko. Bi kultura ezberdinen arteko trukea funtsezkoa da euren munduari buruzko ideia era ezteko». Ahmed Embarek begiralearentzat ere «oso garrantzitsua» da basamortutik ateratzea, «bai haurrentzat baita guretzat ere. Nire lehen bidaia da hau eta niretzat oso inportantea izan da». Halako bidaiekin, halaber, saharar herriaren egoera ezagutarazteko balio dutela azpimarratu du begiraleak.

«**ONGI EGOKITU DIRA**» Margarita Gutierrez eta Jose Luis Martinez elkarteko kideak azaldu dituzte, ongi baino hobeto egokitu dira haurrak euren familia berrietara, eta batez ere euren izakera irekia azpimarratu dute; argi du medikuntza ikasi nahi dutela, «baina hemen ikasi nahi dute».

Hizkuntza, hala ere, arazo bat



izan da, haur gutxiak baitaiki gaztelaniaz hitz egiten. «Hasieran gaztelania-frantsesa-arabiarrak hitz egiteko bat prestatu genuen baina ez digu ezertarako balio, hassaniaz hitz egiten baitute, sahararren arabiarren dialektoa». Hala ere, hitzen bidez ez bada, keinuak erabiliz beti ulertzen dute elkar.

Zizurko familiak gehien harritu dituena haurrek duten taldeko kontzientzia da. «Dena batera egiten dute eta ez dira batere berekoiak. Haur bati opari bat egiten badiozu beste guztiakin banatuko du». Tindoufeko kanpamentuetatik urrun badira ere, bertakoak beti gogoan dituzte eta askotan hitz egiten dute familiaz eta basamortuaz. «Harro dira beren kultura eta herriaz eta hitz egiten dutenean harrotasun hori nabaritzen zaie».

Arratsaldeko prestatzen dituzten jokoetan pozik hartzen dute parte sahararrek. Eskuineko argazkian, Mohamed Lamid Tourad eta Ahmed Embarek begiraleak.



Hogeita urteko gerra

E.E. / IRUÑEA

1884. urtean 1975era Espainiaren kolonia izan zen Sahara, eta ondotik Marokkoren kolonizazio basatia jasan zuten eta jasaten dute gaur egun ere bertako biztanleek. Urte hauetan guztietan zehar errepresio krudela jasan behar izan dute bai espainiar zein marokkoarren aldetik eta egun, Saharako lau wilaya —gure probintzien parekoak— ezberdinei izena daramaten lau

kanpamentutan bizi dira Algeriako Tindouf izeneko erregioan: El Aaiun, Auserd, Smara eta Dahla. Wilaya bakoitza gure herrien parekoak diren sei daira bakoitza auzotan.

Auzoetan, berriz, familia bakoitzaren bizileku den jaima edo denda dago. Tindoufeko kanpamentuetan, hala ere, familia bat baino gehiago biltzen da jaima bakoitzan.

Marokkoko Armadak 1975. urtean okupatu zuen Saharako ipar ekialdea eta urte bereko azaroaren 14an Espainiarekin sinatutako akordioaren bidez, bere esku gelditu zen ekialdeko Sahara. Hegoaldea, berriz, Mauritaniaren esku gelditu zen. Mauritaniak 1979. urtean bakea sinatu zuen Fronte Polisarioarekin baina Marokkok, ordea, bertan jarraitu zuen eta gaur egun ere bertan dira sahararrak errefuxiatu kanpamentuetan bizi diren bitartean.

1975. urtean Marokkok Sahara okupatu zuenetik 20 urteko gerra bizi dute saharako herritar guztiak.

1990. urtean su-etena sinatu zuten Marokkok eta Fronte Polisarioak eta orduz geroztik indarrean dirau. Gaur egun Saharako autodeterminazioa bozkatzeko egin beharreko erreferenduma da arazo nagusia.

Oinarria espainiarrek 1974an egindako errolda da baina Marokkok 120.000 lagun gehitu nahi ditu. «120.000 lagun horiek, ordea, ez dira sahararrak eta horregatik ez dugu inolaz ere onartuko erreferendumean horiek bozka dezaten. NBEK erreferendum justua egin nahi bada ezin du hori onartu» dio Touradek. Mohamed Lamin SODEPAZ elkartearen eskutik uztailean 25a eta joan den astearta bitartean Nafarroan izandako begirale sahararra ere iritzi berekoa da. «Hassan II Marokkoko erregeak marokkoarek bozka dezaten nahi du eta horretarako pape-rak falfifikatzen ari dela badakigu».

Laminen ustez 1974. urteko zentsua erabili behar da, «baina gaurkotuta, noski, bertan agertzen ez diren saharar asko baitago eta guztiak dute bozkatzeko eskubidea». Egun, errodaren identifikazio prozesuan daude eta Nazio Batuen Erakundea, Fronte Polisarioa eta Marokkoko Gobernuak ari dira esku hartzen. Mohamed Laminen ustez, iden-

tifikazio prozesuak luze emango du oraindik.

Tourad ezkor agertu da Sahararen etorkizunari buruz: «Nire ustez hemendik lau edo bost hilabetera gerra berriro has daiteke. Sahararrak basamortuan bizi gara baina ezin gara bertan betiko geratu, eguneroko bizitza oso gogorra da bertan. Bidezkoa den erreferenduma egiten ez bada, nire ustez, gerra piztuko da berriro».

Zizur Nagusian diren bitartean, kazetariak galdezka hurbiltzen direnean baino ez dute urrun utzi duten basamortua gogoratu. Mohamed Lamid Tourad eta Ahmed Embarek begiraleak. Hogeita zortzi haurrek ere, bizikleta gainean diren bitartean, Nafarroan egin dituzten lagun berriak baino ez dituzte buruan. Hilaren amaieran, ordea, Tindoufeko kanpamentuetara itzuliko dira. Bertan seme-alaben zain diren ama guztiak poztuko dira.

Hemendik lauzpabost hilabetera gerra piztu daiteke berriro bidezkoa den erreferenduma egiten ez bada»

Kritikontzi



Nafarroako hizkuntz politika

XANTI BEGIRISTAIN

Aita, aita! Azpirotz ez al da idazten ba 'tz-z' euskara batuan? —galdetu dio semeak aita goizueta-rrari.

—Bai noski.

—Eta orduan zergatik jarri eta dute tunelaren sarreretan tz-rik gabe? —ekin dio berriz mutikoak.

—Ziur aski, itzuriko zitzaizen —erantzun dio Goizuetaokoa.

Momentuz konforme gelditu da gaztetxo baina aurreraxago:

—Begira, begira aitatxo!

—ohartarazi du alabak, kasu honetan—. Hemen, Lekunberri inguruetan, «Leiza, Donosti, San Miguel de Aralar eta auto-
via» daude idatzita toki batzuetan. Izkribu horiek paratu dituztenak ez ote dira pertsona alfabetatuak izango? —galdegin dio, semea baino kozkorragoa den neskatilak.

—Ez dakit ba alfabetatuak izanen diren ala ez, baina hemen behintzat ez dute alfabetoa oso leku txukunean utzi.

Aurrera jarraitu dut eta neskatxak berriro ere honako hau esan dio aitari Etxarri Aranzan:

—Ikus ezazu zeinen gauza bitxia aita, herri honen alde batean «Etxarri Aranz» dago idatzia eta bestean «Etxarri Aranz».

Zein izango ote da zuzena? Edo, herri honek agian bi izen ofizial izango al ditu? Baina beste gauza batzuk ere baditugu e, aitatxo, begira, Bi Haizpeko pasabide inguruetan «Madoz» irakurri dut eta lehenago Aresoko bidegurutzean «Poligono Industrial» ikusi dut. Baina hauetaz gain ez dakit, aita, erreparatu ote diozun Goizuetaokoa bidean makina bat aldi dagoela idatzita «Coto privado (eta) publico de caza». Beraz, hau guztia ez al da berebiziko nahaste-borrastea?

—Bai alaba, bai! Egia esan, zuek haurrok, baduzue meritua, zeren eta eskola publikoan gauza batzuk erakusten dizkizute eta gero errepideetan beste batzuk jartzen baitzikizute, eta, hala eta guztiz ere ikasten dituzue, ez zarete nahasten eta badakizue hizi zuzenak bereizten. Letrero horiek ezarri dituztenek edota ezartzeko agindu dutenek bai merezi dutela Euskaltzaindiko zero biribila! —bukatu aitak.

Eta, izan ere, uste dut goizuetar horiek badutela zioa haserre samar egoteko zeren eta hemen aipatu dituzten kasuak adibide bakar batzuk baino ez baitira. Ikus itzazue neronek sarritan begiztatzen ditudan nahaskeriak Nafarroako hainbat lekutan: «Mezquiriz, Mezquiriz» (Mezquiriz ondoan), «Ulzama ibaia» (Arre inguruan), «Aranatz»

(Igantziko Bentetan), «Turismo Rural» Luzaiden, «Urroz» Erron, «Cizur» bai Nagusian eta baita Txikian ere, «Takonera Parquea», «Etxavacoitz» (edo antzeko zerbait) Iruñerrian eta beste batzuk seguru asko, ni ez bainaiz ikuskatzailea denak jakiteko; gertatzen dena da horrelako letreroek euskaldunon begiak mintzen dituztela, eta orain arteko Hizkuntz Politikako idazkariak ez badira jabetu ez dakit norra begiratuko zuten oso leku ageritan egoten baitira, eta konturatu badira ere, orduan gutxiago ulertzen dut, ez baitakit zer arraio egin duten akatsak zuzentzeko; esan beharra dago huts batzuk berriak direla; beraz berriro ere gaizki egiteagatik, eta beste batzuk aspaldikoak. Kasu honetan txarto, hutsegiteak hainbat urtetan ez zuzentzeagatik.

Hizkuntz Politikaren onerako aitortu behar dut zenbait errakuntza zuzendu dituela dagoeneko, alegia, «Velate, Berastegui, Lekumberri, Larrainzar, Iraitzo, Santesteban (Lekunberri), Lekarotz» eta abar.

Beste leku askotan, ordea, euskal izkribuak jarri gabe daude eta erdaldunak berriz soberan, «Iurzun» kasu.

Besterik gabe ba, espero dezagun Hizkuntz Politikako idazkari berria zorrotzagoa izatea eta bere lana hobe betetzea.

Klasiko bitxi arrant klasiko

Joxemiel Bidador

Berako ekarpen joria (II)

Aita-Erroman Dornaku Olaetxeak 200 liburu baino gehiago idatzi zituen.



Aita Erroman Dornaku Olaetxeari, gaztetan misioetara abiatzeak hizkuntza ugari ikasteko aukera eman zion eta arribatzen zen leku berri guztietan bertako hiztegi bat ontzen saiatzen zen. Ez da harrizkoa gertatzen beraz, EEBBtako lehendakariak saritzea bigarren gerrate mundialean Manilan egindako lanaz inguruko horrenbeste hizkuntzez baliatuz. Halarik ere, amerikanoek Guam irlan izan zuten jokabideari aitziko jarrera sendoa erakutsi izan zuten beti, bertako biztanleen ohiurak guardatzeko. 200 liburu baino gehiago idatzi zituen, baina gehien gehienak EEBBetan daude egun. Txamorroen apostola izengoitiak deitzen zutena Hondarribian hil zen, Bera herria beti gogoan. Bere bidaietan ez zuen sekula ahanzten hango lurrez beteriko zorrotziki bat, ailegatu toki orotan puxka bat botaz. Bere lanen artean Buenos Airesen 1908. urtean irabazi olerki sari bat dago, *Diccionario vasco castellano, castellano vasco*, 1909.goa, *Berako 100 gertaera, Gramatica vasca metodo Olendorff*, Bierbaum aitak eginiko burutazioen euskarapena, aritmetika eta geografiazko bi liburu, edota argitaratu gabe dagoen bere, duda izpirik gabe, 48 orrialdetako biografia interesgarria *Mis cincuenta años de misionero*.

Gaurkoan bukatzeko, liburuen hirugarren idazlearen aipamena ekarri behar honetan, Joakin

Aldabe Juanikotenaren lanaz oroitzekoa bereziki. Legia karrakako Bilkorrean jaio zen 1893. urtean, aurtengo Sanfermin denaren bestetako bezperan orain 25 urte hil zelarik. Oriora lotua lana zela eta, hantxe ezkondu ere egir zen, bertako Aszension Lertxundi andrearekin. 200 olerki baino gehiagoko autorea dugu, gehien batez Mokozorrotz izengoitiak sinaturik. Bere lana, Irungo *El Bidasoa aldizkarian agertu izan zen batik bat 1956.tik, baita Karmen eta Olerki aldizkarietan ere*.

Aldaberen zenbait eta zenbait burutazio laguna zuen Antonio Zabalarri igortzen zizkion gutunetan atzeman daiteke. Hona hemen pasarte bat: «*Gaur arte egin dituten lan danak, zure esku ipini ditut naiz luze naiz labur, naiz trakets, naiz poliki moldatuak Euskera gora bera abekini, osu bakarrik arkitzen naiz. Ez det inoren arnasa ta bultzadarik artzen neuk niri ematen diotena baizik Eta au ez ta biar ainbat. Nigan jayo dan gauza, eta bakar bakarrik nijua nire bidian. Gauz abetako zein motxa dan Orio erri au Obeto esango nuke, zeñen ez jakina dan azken malleraño. Zure lantegi leku ortan, ainbeste gauz eder biltzen dituzun ortan, nik biyaltzen dizkitzutenak politik dirala baditzkiozu, jarri itzazu zure karpeta ortan lo goxo goxuan egunen baten zai argira azaltzeko, bestela...badakizu. Amar mi-lla puska egin ta bota sutara.»*



■ 'Iruñeko hiria' xake torneo itxiko bederatzigarren ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 5an jokatua. Manuel Rivas, (Espainia) 2.520 ELOkoa — Jordi Magem, (Katalunia) 2.520 ELOkoa.

1.e4,c6; 2.Zc3,d5; 3.Zf3,Ag4; 4.h3,Ah5; 5.d4,e6; 6.Ae3,Zf6; 7.d5,c-d5; 8.a3,Zc6; 9.Ae2,Ae7; 10.0-0, Af3; 11.Af3,0-0; 12.Ae2,Gc8; 13.Dd3,Ze8; 14.aG-e1,Zd6; 15.Zd1,b5; 16.Af4,b4; 17.Ad6,Dd6; 18.c3,c3.

Erdiko peoi hori zama bihurtuta dago. Orain lotu egin daiteke, baina alfilaren peoi hori kolokan geratuko litzateke.

19.Zc3,Af6.

Beltzek ondo landu dute ahultasun hori. Txuriek peoi bat gutxiagoz aurre egin beharko diote partidari.

20.Da6,Db8; 21.Za4,Zd4; 22.b4,Gc6; 23.Dd3,Ze2 xa; 24.Ge2,fG-c8; 25.g3,Gc4; 26.Zc5,Dc7; 27.fG-e1,h6; 28.Zb3.


Zutabea ireki? Bai. Ez zegoen itxita mantentzerik (Ae7).

28....Gc3; 29.Dd1,Dc4; 30.Za5,Dd4.

Ikus koadroa. Beltzen inurri-lana aurrera doa, erdiko peoiak koroatu nahian. Txuriek, itsututa, dama aldaketari muzin eginen diote.

31.Da4,Gg3; 32.Eh2,Gg5; 33.Gg1,Ae5 xa; 34.Eh1,Df4.

Beltzen sarrera azkarra eta zorrotza izan da. Txuriek etsi zuten, matea galarazi ezinean: 35.Gg2,Gg2; 36.Eg2,Dh2 xa; 37.Ef3,Dh3 xa mate.



Faltzesek bertako baratzuriei eta bere entzierruari zor die inguruan duen sona. 'Askako entzierrua' ez da arriskutsuena, bai ordea ikusgarriena: ingurua zeharo malkartsua da eta ibilbideak ez du halako izenik merezi, amildegia- ren hasiera iragartzen duen marra estua besterik ez da eta. Bigantxak maldan beheara askatzen dituztenean, adarrei baino kasu gehiago egin behar zaio aldapari berari.

Entzierrorik ikusgarriena, Faltzeskoa

ANA UNANUE / FALTZES

«Makina bat entzierru ikusitakoa naiz, baina Faltzeskoa bezalakorik...bat ere ez! Eta ez da ni bertakoa naizelako, hala delako baizik», dio Jose Jimenez artzainak. Faltzesen orain dela 75 urte sortua, artean mutil kozkorra zela mendian gora eramaten zuen aitak, jaietarako bigantxak nola ekartzen zituzten ikustera. Orduetik datorkio zaletasuna Jose Jimenezi. Zeharo gazte hasi zen artzain, lehendabizi jaioterriko abeltzainei laguntzen eta urte batzuk geroago, 1948an, herriz herri. Batetik bestera ibili zen urtetan, Amigot, Zaldueñas eta adiskide duen Agirrerren bigantxekin. Oinez mugitzen zen, jakina, orduan ez baitzuten autotrik. Horrela ezagutu zituen Nafarroako herri gehienak eta Aragoiko beste mordoxka bat. Gipuzkoara ere joaten zen tarteka. Gogoan duen bidaiarik luzeena Debara egin zuen, hain justu, Tuteratik abiatuta: zortzi egun eman zituen bidean.

Iruñeko Sanferminetako entzierrorietan ere hamalau urtez aritu zen, baina Joserentzat ez dago Faltzesko entzierrua baino zirrargarriagorik. «Iruñekoak ospetsuagoak izan arren, niretzat hemengoak mila aldiz emozionanteagoak dira. Han arriskua zezenek jartzen dute. Faltzesen, berriz, inguruak berak. Aldapa hau alua da gero!».

Hori ongi dakite inoiz jaitasi dutenek. Faltzesen entzierrua ez da korritzen. Goizeko bederatzietan, grabitate-indarrari desafio eginez, maldan beheara askatzen dituzte bigantxak eta hor konpon hondoa jo arte. Lasterketa honetan ez dago ez legerik, ez 'divinorik', ezta babeslekurik ere. Adardunek eta bi zangodunek estropozuka jaisten dute 449 metroko malda. Ibilbidea (nola-bait deitzearren) meharra da oso, baina hobe izuari kasurik ez egitea, hortik kanpo amildegia besterik ez baitago. Horregatik, adarren aurrean jartzea bezain arriskutsua izan daiteke alboan ikusle gisa gelditzea.

Arriskuak ez du jendea uxatzen ordea. Aitzitik, Faltzesko entzierrorak halako ospea hartu du azken urteotan, garaiz joan behar dela inguru malkartsuan tokia izateko. Jendea ahuntzen antzera igotzen da azken muturreraino. Ikusleen artean bertakoak baino ugariagoak izaten dira kanpotik, asko Tafallako jaietatik, etorritakoak. Bezperan parranda egin eta Tafallako entzierrua korritu edo ikusi ondoren, arnas-estuka iristen dira Faltzesera —hori iristen direnak, beste asko bidean geratzen baitira, akiturik—.

Ez da beti horrela izan. Josek gogoan ditu gazte denborak, eta orduan lau lagun ateratzen ziren entzierrorako eta beste lau izaten zituzten begira. Jendetzak arriskua areagotzen du, baina badu abantailarik. Artzainak egun osoak ematen zituen lehen ihes egindako bigantxen atzetik. Orain berriz gehiago kostatzen zaie jendartetik hanka egitea. Hala ere, noizbehinka tropela sakabanatu eta adardun bakoitza bere kasa mugitzen hasten denean, izugarriko kaosa sortzen da. Iaz gertatu zen eta egunkariak hurrengo egunean atera zituzten irudiak ikustekoak ziren: jendea amildegitik beheara ihesi, ardaska bati edo beste edozein euskarriri heldu nahian. Duela urte batzuk herrian bertan egin zuen ihes beste bigantxa batek. Eskaileretatik gora igo zen lepo bete zegoen taberna batera eta jendea nora jo ez zekiela gelditu zen. Batzuk balkoitik beheara hasi ziren ihesean eta bigantxa gaixoak, haiei segika, bere buruaz beste egin zuen. Lehen pisutik erorita, seko gelditu zen.

Nahiz eta ikusgarria izan, Faltzesko entzierrorako ez da sekula inor hil, eta zauritu larriak ere gutxi izaten dira. Adarkadak baino gehiago kolpeak eta astinduak kaso ohi dituzte entzierrorako ateratzen direnek.

Bigantxa gehienak Nafarroakoak izaten dira, baina Aragoitik ere dezente ekartzen dituzte, batez ere merkeagoak eskaintzen dizkietenean. Aurten, esate ba-



Bigantxek estropozuka jaisten dute 449 metroko malda. Ibilbide meharretik kanpo amildegia besterik ez dago. JOXE LACALLE

terako, Sadabakoak eta Casetas-koak izan dira jaietako lehen egunetan.

Bezperan ekartzen dituzte eta Josek amildegia- ren magalean hesituta daukan txoko batean gordetzen dituzte. Goizeko zazpi t'erdietan maldan gora igotzen dituzte, entzierriloan, bederatzietan berriro jaitseko. Entzierriloan jende gutxi egoten da artzainez aparte. Egunsentiarekin

batera, isiltasunean igotzen dituzte goiko askaraino. Orduan bai nabaritzen dela albarakaren usain gozoa.

Jendea pixka bat geroago bertaratzen da, txarangaren doinuarekin. Bederatzi bigantxen lasterkefak minutu pasatxo irauten du batez beste, baina merezi du toki onetik ikusteko hartu beharreko denbora eta nekeak hartzea. Hala uste du behintzak Jo-

sek. Berak duela hamabi urte utzi zuen artzain lana, aldapan gora eta beheara ibiltzeko zaharkitua omen zegoelako, baina ez du hutsik egiten. Entzierrorako aurretik eta ondoren bigantxen gordelekutik hurbil izaten da, Raul izeneko artzain gazteari hau eta beste aginduz. Hiltzen denean Faltzesko Udalarari utziko dio gordelekua, «herria nitaz oroit dadin».

«Ameriketara bizitzen ohitu dela esaten dizunak gezurra dio»

IRENE ARRIZURIETA / LEITZA

Jose Iturrarte Garmendiak abuztuaren 22an Leitza beteko ditu 73 urteak, Argentinara joan baino lehenago bete zituen lehengo hamairuak bezalaxe. Leitza, bere beste hiru anaiekin eta aitarekin -ama berak 9 urte zituela hil baitzen- Ameriketara abiatu zen Gerra Zibila heldu zelako eta bere

ko Errepublikan 30.000 hektarea General Atxa eremuan utzi zizkieten herentzian nere aitari eta bere familiari. 1937an lur hori saldu, hiru anaien artean banatu zuten eta bi Iruñera etorri ziren eta ni Argentinan geratu nintzen.

EGUNKARIA.— Zertan egin duzu lan Argentinan?

ITURRARTTE.— Ni oso gazterik atera nintzen etxetik, hama-

nuen deskantsorik egiten laneatik aparte landan itsituak egiten bainituen Hurninganen, ingelesak dauden tokian. Lan-tegiko eta itxituen diruarekin lur zatia erosi nuen Moronen. Neurea eraiki nuen auzoko igeltsari italiar baten laguntzarekin hiru hilabetetan eta nere emaztearekin bertara joan nintzen bizitzera. 50 urtez egon naiz ezkondua, orain alargun

tua nago dagoeneko. Iloba ikustera joaten naiz semearen etxera Villa Udaondora, Castellarren. Bestalde, lau denda ditut alokatuak. Neure aitagai-narrebarentzat egin nituen, gero nere andreak heredatu zituen eta hau hiltzean erdia neretzat da eta beste erdia semearentzat. Etxearen atzekaldean dut nere lanetan aritzeko, ez dut diru faltarik eta ongi bizi naiz.

EGUNKARIA.— Ameriketara geratzeko asmoa duzu edo Leitza etorriko zara bizitzera?

ITURRARTTE.— Bi gauzak egitea gustatuko litzaidake. Honera bizitzera etorriko banintz nere bi urteko iloba, Brenda Mikaela, asko botako nuke faltan. Badakizu, mundua eroez egin dago, nere hiru anaiek ez ziren itsasora bota igeriten jakin gabe, ni bai eta bide luzea egin ondoren ur gainera atera naiz. Orain, Leitza zeruan bezala nago, aingeru guztiez inguratua. Senide guztiak oso ongi moldatzen gara. Batuak egoteko eta zure herria asko maitatzeko basamortuan bizi izan behar duzu, gainerakoan ez duzu hainbeste maitatzen, neri behintzat hori gertatzen zait. Ameriketara bizitzea ohitu dela esaten dizunak gezurra dio, nik ez dut inor ezagutu oraindik baina hara bueltatuko naiz.

EGUNKARIA.— Leitza oso aldatua aurkitzen duzu?

ITURRARTTE.— Batere, lehenago bezala topatu dut. Mendiak berdin daude, lehen pago gehiago zeuden eta orain pinuak nagusi diren arren. Etxeak berriak aurkitzen ditut. Adibidez, Zazpimerreko parienteak ginen, bertan jostetan ibili nintzen Josepa izebarekin eta nere anaiekin, berritua dago baina lehenagoko etxea da. Haundiagoa dago, papeleraz ezarri dute lehenagoko Landan eta auzoak luzatu egin dira baina lehenagoko Leitza berdina da.

Jose Iturrarte

JUBILATUA



SOSLATA

Gitarra jolea eta koplakantaria

Bere emazteak gitarra bat oparitu zion eta hau dela eta jotzen hasi zen. Gitarra horrekin gustora ez eta beste bat egin zuen, lagun batek kitarrak egiteko bi molde utzi bazizkion. Gitarrarekin Ameriketako folklorea jotzen du eta berak asmatutako olerkiak kantatzen ditu. Leitza herriko ezinik Leitza alde egin zuen eguna gogoratu du Argentinan «Hamairu urterekin Aresoko gurdia (autobusa) etxetik atera da mutiko txurie. Kandel bide horretatik ikusi zubi, txirriketan belarra ametsa haundie, ikastola ez dakit ezagutzen nuen. Amateko ikusten dut sukaldean jarrie, euskera ikasi nuen zuretzat guztie. Ahaztu gabe biziko, hartu dut betiko bihotza negarrefan hemen ibiliko» dio.



Jose Iturrarte hamahiru urtekin joan zen Argentinara.

aita Serapio Iturrarte, Leitza batzokiko zaindaria hemengo gelditu ezkeror arriskuan zuek dela uste zuelako. 60 urte herrikanpo egon ondoren egun batzuk pasatzen eta herri mina asetzera etorri da Iturrarte.

EGUNKARIA.— Zergatik abiatu zinen Ameriketara?

JOSE ITURRARTTE.— Gu lau anai txiki ginen, amarik gabe gelditu ginen nere anai zaharrenak 9 urte, nik zazpi, hirugarrenak hiru eta txikiak zortzi egun. Ameriketara abiatu ginen Gerra Zibila heldu zelako nere aita Serapio Iturrarterekin, Leitza batzokiko zaindaria eta hezurretaraino nazionalista. Argentinara

«Gerra Zibila heldu zelako abiatu ginen Argentinara. Nere bi anai Iruñera itzuli ziren baina ni bertan gelditu nintzen»

bots urte nituela. Anai guztiak sakabanatuak geunden, guztiak Andenera joan ginen eta 5.000 langile zituen ehun fabrika batean hasi ginen lanean. Hor aurkitu genuen Ameriketara hodeiartza. Geroztik, zortzi orduko lana genuen eta gero atxoinaldia, hala ere nik ez

nago eta seme bat daukat. Ordurako milaka euskaldun ezagutu nituen Argentinan zehar lanean ibili bainintzen. 36 urtez egon naiz lanean ehungintzan. Fruta biltzen ere udaran ibiltzen nintzen, Zafra biltzen Tukumanen, rantxoetan behiekin, horrela gogor lanean -zalburukin zegoen ura edanez- ezagutu dut Argentinara. Nere bizitza luzean ez dut nagusi txarrik aurkitu.

EGUNKARIA.— Orain zertan zabilta, non bizi zara?

ITURRARTTE.— Jubilatua nago, baina hala ere beti badut zer-bait egiteko. Ez dut bakardaririk batere sumatzen, Leitza pentsatzen baitut beti eta aseptua nago, bakardadeaz helika-

PANE LUCRANDO



ZALDI EROA